

Bezeroekiko harremanak

Bezeroei helarazi behar diegu kolonia eta hori egiteko beraingana hurbiltzeko modu erakargarri eta eraginkor bat otu zaigu. Horregatik, hurrengo bideak erabiliko ditugu: Kanpaina ezberdinak antolatzea eta iragarkiak edo kolaborazioak egitea pertsona famatu desberdinekin.



Honetaz gain, bezero leialenei (produktua 10 aldiz baino gehiago erosi dutenei) deskontu ezberdinak egingo dizkiegu eskari bat egiten duten bakoitzean. Halaber, beste “estra” batzuk ematea ere gustatuko litzaiguke: Etorkizunean perfume usain berriak egiten baditugu laginak bidaltzea, beraien lurrin gustukoena aukera dezaten, hainbat zozketa ere egingo ditugu... Gainontzeko bezeroak mantentzeko noizbehinka eskaintza bereziak egingo ditugu, adibidez: “Black Friday-a”.



Honekin batera, bezeroarekiko dugun erlazioa dei eta korreo elektronikoaren bitartez izatea erabaki dugu. Zerbitzu pertsonala mugikorren bidez izango da, bezeroak gurekiko “hurbilago” sentiarazteko.



Pertsona famatu eta kolaborazioen gaian sakontzea gustatuko litzaiguke. Gaur-egungo gazteentzako ohikoa den zerbait izan arren, belaunaldia zaharrentzako zerbait guztiz bitxia izan daitekeelako. Azken aldian interneteri konektatuak bizi gara, horren ondorioz, pisu handia hartu dute sare-sozialetan ikusten ditugun pertsonak. Influentzia handia dute guregan, eta enpresa ezberdinak horretaz konturatu dira. Horregatik, kolaborazioak egiten dituzte “mundu hortako” pertsonekin eta gure enpresa ez da gutxiago izango.